

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Euxebio Arejolaleiba Saez de Cámara

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1955)*

Aurkibidea



Biografia



Gatzikarro (Gatxekoarroa) baserrian jaioa, Aramaioko Azkua auzoan, baina sentimenduz marindarra, bizimodua Marinen (Eskoriatzan) egiten zutelako: eskolara eta elizara Marinera joaten ziren. Aita bertakoa zuten, artzaina, eta ama Gasteiz ondokoa; euskara eta gaztelania, umetatik biak ikasi zituzten bost anai-arrebek. 1969an trena kendu zutenean, Maringo biztanle asko inguruko herrietara joan ziren bizitzera. 1971n Euxebio ere Arrasatera joan zen bizitzera, hara ezkonduko arreba baten etxera, bertan ikasketekin jarraitu ahal izateko. Gero Teologia ikasi zuen eta Euxebio irakaslea izan da, erretiroa hartu duen arte. Hikazalea eta hika hiztuna, Eskoriatzako hitanoa jasotzeko elkarrizketatu genuen, Oñatin: noka egin zuen elkarrizketa.

Zintak

ESK-104

- **Proiektua:** Eskoriatzan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-01-28
- **Iraupena:** 102 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Altolagirre Etxeberria, Maddi

Pasarteak

1. Hika etxean

- **Erref:** ESK-104/004
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:28

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Etxean beti jaso izan dute hika, amarengandik ez baina inoiz ez du oztoporik jarri. Naturaltasun osoz egin izan dute hika; zuka da, izan ere, anai-arrebekin arrotz zaiona. Beti jaso duen arren, ez dago ziur aitzak zuzenean beraiei hika egiten zien edo ez.

2. Eskolako kontuak. Hizkuntza eskolan

- **Erref:** ESK-104/005
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:12:28. **Bukatu:** 00:17:31

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Eskolan gaztelaniaz egiten zuten. Ez ditu garai hartako oroitzapen bereziki onak. Birkia du Euxebiok eta eskolan, beraz, inoiz ez zegoen bakarrik. Espainolez egiteko arazorik, hala ere, ez dute sekula izan, etxean amarekin ikasi baitzuten. Irakasle batekin harremana mantentzen du oraindik eta, gaur egun, Euxebiorekin bakarrik egiten du euskaraz. Euskaraz egiteko inongo bultzadarik egon gabe euskaraz egiteak ahalegin handia dakar.

3. Euskarak nola eragin dion

- **Erref:** ESK-104/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:17:31. **Bukatu:** 00:19:23

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Euxebiorentzat hizkuntza oso garrantzitsua da eta dudarik gabe euskara da bere hizkuntza afektibo eta garrantzizkoena. Ondo gogoratzen du bere euskal literaturako irakasle bat ere, pertsonalki eragin ziona.

4. Irakasle lanak

- **Erref:** ESK-104/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:25:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ikasketak eta gero, irakasle izan zen Euxebio. Gertutasun handia erakusten zuen, eta erlijio gaiak justiziarekin lotu nahi izaten zituen.

5. Justizia eta irakaskuntza

- **Erref:** ESK-104/010
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:25:29. **Bukatu:** 00:28:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Irakasle izateaz gain, justiziaren aldeko borroka hortan, GKE baten partaide ere bada. "Dena denontzako da" leloa azpimarratzen digu. Balio biblikoak lantzen zituen irakaskuntzan ere. Hala ere, etika irakasten zen egokitasunarekin ere ez dago guztiz ados.

6. Hika auzoan

- **Erref:** ESK-104/011
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:30:42

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Marin, bizi zen auzoan, hika egin izan da beti. Adin desberdintasunarena garrantzitsua iruditzen zaio, nahiz eta badakien oztopoizan daitekeela. Andre-gizon artean bi kasutan soilik ezagutu du hika hitz egitearena.

7. Hika familiako gazteenekin

- **Erref:** ESK-104/012
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:30:42. **Bukatu:** 00:33:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hilobekiko hikaren transmisioan egon den etenarekin pena du. Euxebiok egin izan die batzuei. Neska edo mutil izanagatik ere ez du eragozpenik eduki hika egiteko. Baina aitortzen du ohitura falta bai izan duela haietako batzuekin.

8. Hika eta baserria

- **Erref:** ESK-104/013
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:33:10. **Bukatu:** 00:38:22

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Arrasatera eginiko aldaketa hortan, hika ingurunea ere aldatu zitzaion. Ahizpa zaharrenak izan dira Euxebioentzat hizkuntzarekiko erreferente. Aldaketa horretan, ahizpetako bat denda baten lanean hasi zenean, euskera makala ikusten zuen Arrasaten. Baserrietan mantentzen da ondoen hizkuntza, Euxebioren usteetan. Kolean gerra osteko kontextua zenez, arrasto handia utzi zuen honek ete hizkuntza kalitatean ere ikusten zen. Normaltasun batean egin zitekeen euskara, baina bazegoen etzekienik. Hika egiteko aukera dutenen kopurua hala ere, aso murrizten da. Hika berreskuratzeke egin den lana

txalogarria dela diosku eta bere hiloba bati hika egiten hasi da orain dela gutxi eredu bat izan dezan. Hala ere, badaki arrotz egiten zaiola.

9. Auzoko hizkuntza-egoera

- **Erref:** ESK-104/014
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:38:22. **Bukatu:** 00:40:08

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gaur egun, Marin auzoan oso jende gutxi bizi da. Beraz, ez daki hika bizirik dagoen ala ez. Zuka egiten dutela esango luke. Baserritarren kontua izategatik galdu dela uste du, baita arrotz edo baldarra den ideiatatik. Gertutasuna eta konfidantza transmititzen duen hizkera da Euxebiorenzat.

10. Tokian tokiko euskalkia

- **Erref:** ESK-104/016
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:49:27

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Eibarreko irakasle bat ezagutu zuen, Bizkaiko aditzak eskolan irakasten zituen, eta ezagutu duen bakarra da. Euskalkia erakustea ere garrantzizkoa da, gazteek ez baitaukate erreferentziarik.

11. Euskalkiak eta konplexuak

- **Erref:** ESK-104/017
- **Iraupena:** 0:07:02. **Hasi:** 00:49:27. **Bukatu:** 00:56:29

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara

Laburpena:

Euskarak lotsatu izan gaitu beti eta errespetu edo desprestigioagatik erdarara jo izan da beti. Inguruko hizkuntzaren konparazioaz gain, beste euskalkiekin konparaketa ere beti izan da, gurea gutxietsiz. Gotzon Garateren artikulua batean irakurrita, egitura aldetik, sintaxi aldetik, bailarako herri batzuk gailentzen direla dio. Herriz herri lexikoa eta hitzak ere aldatzen zaizkigu eta nortasuna ematen digute euskalkiek.

12. Hika gazteen artean

- **Erref:** ESK-104/018
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:56:29. **Bukatu:** 00:58:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Arrasate inguruan ez du hikarik entzuten gazteen artean. Bakar batzuk entzutean ere harritu egiten da. Berreskuratze prozesuan egin den lana benetan miresten du.

13. Appa Hi! Bideoa

- **Erref:** ESK-104/021
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 01:03:22. **Bukatu:** 01:03:34

Gaia(k):**Laburpena:**

Appa Hi! aplikaziorako bideoa.

14. Hika eta hizkuntzarekiko lotura

- **Erref:** ESK-104/023
- **Iraupena:** 0:05:42. **Hasi:** 01:05:30. **Bukatu:** 01:11:12

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eginiko lana mirestu eta goraiatzeko du. Baina garrantzitsua hika hitz egiten hasteko lotura afektibo hori bilatu eta lortzea dela dio. Hizkuntzarekiko lotura generalean. Etorkin asko etorri dira azken urteetan euskararik ez zekitenak. Hizkuntza komunitatea sortzeko tresna garrantzitsua da eta gaur egun egoerari buelta emateko prozesu luze bat jarri beharra dago martxan. Jakintza eta erabileraren artean ere badago talka. Gure hizkuntza txikia izanik jende asko ez dio beharrezkotasunik ikusten. Euskara hitza bera gutxi erabiltzen du Euxebiok astuna egin ez dadin eta garrantzia emateko.

15. Hikadunaren perfila

- **Erref:** ESK-104/025
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:13:04. **Bukatu:** 01:16:20

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Baserritarra, gizona eta 50 urtetik gorakoa da gaur egun hitanoz egiten duen pertsonaren perfila. Marinetik Eskoriatzara edo Arrasatera joan zen jende asko trenaren sorrerarekin. Asko dira baserri girotik kalera jeitsi eta hika egiten hasi direnak. Baina Euxebiok bakarren bat bakarrik ezagutzen du eta gustatuko litzaioke gehiago izatea kontzientziadunak.

16. Badu euskara batuak informalerako espazioarik?

- **Erref:** ESK-104/026
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 01:16:20. **Bukatu:** 01:19:39

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Baserri giroan erabiltzen diren hitz eta lexiak gero kalean ez dira aurkitzen. Beraz, baserritar bat kalera moldatzean, hizkerek talka egiten dute, bizipenak falta zaizkie. Hutsune nabarmen bat ikusiz. Oñatiko kasua salbuespen bat da beste herri batzuekin alderatuz.

17. Hika berpizteko ekimenak

- **Erref:** ESK-104/032
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:24:49. **Bukatu:** 01:25:38

Gaia(k):

- 101L » Kultur aniztasuna » Bizikidetza proiektuak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hikalaguna bezalako ekimenak oso onak iruditzen zazkio eta berak ere hartuko luke parte herrikoan.

18. Maringo historia

- **Erref:** ESK-104/034
- **Iraupena:** 0:08:54. **Hasi:** 01:26:46. **Bukatu:** 01:35:40

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Marinen jauregi bat zegoen, abareak ziren bi anaiena. Jauregia baserri bilakatu zuten. Bost belaunaldiz bertan egon zen eta saldu aurretik Euxebioren familia bertan bizi izan zen, birramona bertan jaioa zen zehazki. Baina gero beste etxe batera joan ziren bizitzera. Baserri hori erre egin zen eta bertako gurutzea Apotzagako kanposanturako erabili zen. Garai batean Marin bertaraino iristen zela uste da. Maringo baserrien berezitasuna da beheko sukaldearen erdian egotea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com